



4 EGITASMOA
"Pyreneus sarea"
aurkezteko
hitzaldi sorta

Ganbo Iturri Kultur elkarteak urtea beteko du laister Lasarte-Oria eta ibilbide honetan egindako lanaren fruitu izango da martxoan zehar antolatutako hitzaldi sorta. Elkartearen baitan garatzen ari diren lehenengo egitasmoa "Pyreneus sarea" proiektua da. Komunitate pirenaikoak eta eskal lurrik izan duten elkarrekotasun kulturala aztertzea du xede.

5 SAHARA
Hurrek ez dute
harrera familien
bisita jasoko

Saharako errefuxiatu kanpamentuetan egoera ez da erraza. Ez dira bisatuak ematen eta atzeritarrek oso zaila dute bertaratzea. Urtero egiten den Sahara Maratoia ez da antolatu eta "Oporrak Bakean" proiektuaren barruan harrera familiek Aste Santuan egiten dituzten bidaiak ere bertan behera geratu dira. Herrira urtero zazpi edo zortzi haur saharar etortzen dira uda gurean igarotzera. Egoeraren inguruan hitz egin dute Yaiza Ruiz eta Aitor Sanchezek.



Elkarlana langabeziari aurre egiteko

Eskualderako lehenengo enplegu plana aurkeztu dute sei udalek



Ezkerretik Usurbil, Hernani, Astigarraga, Andoain, Lasarte-Oria eta Urnieta alkateak asteazkenean egindako aurkezpen agerraldian.

Astigarraga, Hernani, Urnieta, Andoain, Usurbil eta Lasarte-Oriako alkateek aurkeztu zuten azken hilabeteetan lantzen aritu diren enplegua sustatzeko plana. Honi esker eskualdean epe motzeko 70 lanpostu inguru sortzea espero dute. Agerraldian adierazi bezala, jakitun dira ez direla nahikoak baina planaren helburua lanean jarraitzea da langabezia egoera larriari nolabait aurre egiteko.

Andoain Ana Karrera alkateak aurkeztu zuen eskualdeko gainontzeko alkateekin batera lehenengoz sustatutako enplegu plana. "Gure eskualdean langabezia tasa altua da eta nolabait egoera honi aurre egin behar geniola erabaki genuen iazko otsailean" biltzen hasi ziren eskualdeko udal ordezkari eta teknikariak bideak zeintzuk izan zitezkeen aztertzeko. Maiatzean lankidetzarako akordioa sinatu zuten udalek eta Lanbide eskaintzen zuen diru laguntza lerroa eskuratzeko.

Aurkeztutako enplegu plana gauzatzeko 484.772 euroko aurrekontua dute uda-

lek eta hauetatik 300.000 euro Lanbide jarriko ditu.

Elkarlanerako bide honetan eskualdearen diagnostiko bat egin nahi izan zen eta honetarako asko izan dira sektore ezberdinekin burututako bilerak "datu batzuk emateagatik, 24 bilera, 6 mahai sektorialak 10 bilerekin eta sortutako hiru forotan 64 parte hartzaile izan dira. Guretzako parte hartze hau, Lanbide, Aldundiko eta udalordezkari eta teknikariekin batera, oso positiboa izan da".

Adostasuna lehenengoz

Udal ordezkariak azpimarratu zuten lehenengoz adostasun

politikoa egon dela gai hau eskualde bezala kudeatzeko izan ere, Hernaniko alkateak argitu moduan, "eskualde bakarretakoa gara enplegua sustatzeko garapen agentziarik ez duena, udaletxe batzuetan enplegu teknikariak ere ez zegoen". Zailtasun hauek gaititu eta elkarlanetik lehenengo enplegu plana gauzatu dute.

Asmoa epe motzerako 70 enplegu inguru sortzea da. Hiru proiektu multzotan banatuko dira langile hauek. 6 langile hartuko dira Leitza-ran turismo aktibo zentrorako eta beste 6 hiri eta industria hondakinen kudeaketarako Usurbilen. Bi egitasmo hauek enplegua eta formakuntza atalaren baitan gauzatu dira.

Bigarren multzoa auto-enplegurako proiektuena izango da; dagoeneko lanean da Andoaingo Urigain etxean eta eskualde guztirako ematen du zerbitzua. Honetan bederatzi enpresa berrien

sorrera kudeatzen ari dira eta hauetan 14 lanpostu betetzea espero da. Hirugarren multzoan, herritarrentzat zerbitzuak deritzona, bi langile hartuko dira Usurbilgo mendi bideak garbitzeko eta enpresetan ikuskaritza lanak egiteko beste bi langile hartuko dira ere. Hauen lana eskualdeko enpresek dituzten beharrik ezagutzea izango da eta lan honen emaitza 51 lanpostu sortzea hauetan.

Enpresek diru laguntza jasoko dute langabezia duden herritarrek sei hilabetez kontratatzeagatik.

Enplegu plana oinarri bat besterik ez dela azaldu nahi izan dute eta lanean jarraitzeko asmoa agertu dute guztiek. "jakitun gara etxe askotan egoera oso larria dela eta langabetuentzat ez dela nahikoa baina lehen pausua da eta elkarlanean konprometua hartu dugu gure esku dagoena eskualde guztirako ematen du zerbitzua. Honetan bederatzi enpresa berrien egiteko".

Krisi garaian, guk ere esfortzua egin nahi izan dugu, gure prezioetan!

MAiTE

ESTETIKAKO ARETOA

Prezio berriak fotodepilazioan ETORRI eta GALDETU

Uistin Kalea z/g • Tel.: 943 370845 • Lasarte-Oria

Foto depilazioa argi pulsatuarekin

- Era ezberdinetako depilazioak
- Aurpegiko tratamenduak
- Gorputzeko tratamenduak
- Makillajeak
- Beste hainbat zerbitzu

ADURIZ DE LASARTE S.A

Odolkia- Solomo ontzutua Solomoa baratxuritan

Etxeko txorizoa Tripakiak- Saltxitxak

Txistorra Basurde burua

Baserri pateak

BERTAKO FABRIKAZIOA

Loidi Barren kalea 3 • 20160 Lasarte-Oria
Tel.: 943 361278 - 943 361655 - 943 362451

Neure kabuz



Unai Muñoa

Gizonetik gizonera

Oraingoan, gizontasunari erreparatu nahi izan diot, zinez gai garrantzitsua iruditzen zait eta. Zorionez, berdintasunaren aldarririk gero eta indar gehiago hartu duen garai hauetan, ezinbestekotzat jotzen dut gure gizontasuna ausnargai jartzea.

Jakinak dira gizon izateak berekin dakartzen rol eta gain kargak. Gogorrek izan beharrak ahul egiten gaitu, eta ahul garena ez onartzeak bakartu eta emozionalki isolatzen gaitu. Sexualki lortzen dugun palmasesak mailakutzen gaitu. Segurtasuna adierazi behar horretan, izuaren preso bizi gara. Indarraren balioak biolentzian hezten gaitu. Oihaneko errege ez bagara gure identitateak idokan sentitzen dugu. Negar ez egiteak besarkadak galarazten dizkigu... luze jarrai genezake adibideak eman eta eman.

Nire gizonkeriak ezagutu eta gizontzeko bidea egin nahi dut, bere osotasunean, emakumeekiko berdintasunean, baina gizon izateari utzi gabe. Ezinbestean apurtu beharreko kateak baitira generoak ezartzen dizkigunak, eta gizonok bide luzea dugu egiteko oraindik.

Hau da datorren martxoaren hamalauan, Lasarteko Manuel Lekuona kultur-etxean, Imanol Kamio piano joleak, Aitor Atxega gitarra joleak eta Ander Lizarralde eta Unai Muñoa bertsolariok eskainiko dugun emanaldiaren muinetako bat, "Ez gara Palestinaz ari" izendatu duguna. Bertan, gure bertute eta alde kutrekin garen bezala agertzeaz gain, gure gizonkeria agerian utzi eta eredu berrien bila abiatzeko premia aldarrikatzen dugu, bada garia eta.

Gure kantak dioen moduan: kartzela bat bada zure bizitza, zeu zara orma, barrotea, giltza... gizonak ez dute egiten negarrik eta horregatik gaude hain bakarrik. Ez zaude bakarrik, ez zara bakarra, guztiok daukagu elkarren beharra.

Zorion agurrak




Richard

Zorionak txapeladun! Zure osaba-izeba, Imanol lehengusua, Pablo eta Maiteren partetik.



Eneko

Zorionak gure etxeko txapeladunari 10. urtebetetzean, guraso eta Maialen-en partetik



Esther eta Judit

Zorionak zuen 9. urtebetetzean. Gonzalo osabaren partetik. Muxu bat eta mila irribarre.



Suhar

Zorionak, ederki pasa dugu zure 7. urtebetetzean. Udane, aitaxo eta amatxo.



Irati

Zorionak printzesa zure urtebetetze egunean. Lau muxu potolo familiaren partetik!



Garikoltz

Zorionak gurasoen, Maitaneren eta familiaren partez. 12 muxu handi!



Marga

Pausoka pausoka urteak betetzen eta poliki-poliki gurekin ospatzen. Muxu gozosa prexiosa!



Sagrario eta Emiliano

Zorionak, ezkontuta 50 urte betetzeagatik, zuen seme-alaba eta biloben partetik.



Malder

Zu zara nagusia! Altxa gaztea! 18 muxu handi etxekoan partetik.



Ane

Aupa gazteak! Gora musika-dantza! Gozatu eta ondo ondo pasa zure egunean!

Azoka txikia

Eskaintza Inmobiliarioak

- Garaje itxia alokairuan Geltoki kalean. Kokaleku ona. Harremanetarako, 615 720 367.
- Etxebizitza alokatzen da Sasoeta auzoan. 2 logela ditu eta berogailu zentrala. Abala eskatzen da. Telefonoa: 649526766
- Logela alokatzen da Lasarte-Oriako pisu batean. 250 euro hilabetero. 600 612 085.
- Logela alokairuan Urnietan, neska izan behar du. Telefonoa: 626057485
- Logela alokatzen da Zubietan. Etxetik bista ederra dago. Harremanetarako, 655 744 039.

Lan-eskariak

- Emakumea eskaintzen da interna moduan edo orduka etxeko lanak, garbiketa, platerak garbitu edo helduak zaintzeko. Esperientzia eta paperak dauzka. Harremanetarako, 619 803 199.

- Negutegietan, garbitzaile edo frutarekin lana egingo nuke. 625 423 540
- Pertsona nagusiak eta umeak zaintzeko, etxeko lanak egiteko... edozertarako prest. Orduka edota asteburu zein jai egunetan lan egiteko ere bai. 943404015
- Neska arduratsuak, lana bilatzen du 3. adinekoen edo umeen zainketan edo garbiketa lanetan. Erreferentziak eta papelekin. 682812861
- Emakumea eskaintzen da interna moduan edo orduka etxeko lanak, garbiketa edo helduak, zein haurrak zaintzeko. Esperientzia eta paperak dauzka. Harremanetarako, 666 708 963

Bestelakoak

- Ingeleseko klaseak ematen ditut maila eta adin guztietan. Harremanetarako zenbakia, 693 601 222.

Heriotzak Jaiotzak

Jaiotza

- Maria Naz, otsailaren 1 lean.

Heriotzak

- Clemen Ruano Sebastian, otsailaren 27an, 81 urte zituela.
- Eva Lopez Perez, otsailaren 25ean, 84 urte zituela.
- Elena Iriarte Astiz, otsailaren 24an, 87 urte zituela.
- Jose Luis Martinez de Morentin Lasuncion, otsailaren 18an, 75 urte zituela.
- M^o Dolores Soroa Izaguirre, otsailaren 18an, 95 urte zituela.
- Francisco Javier Yarza Ezaguirre, otsailaren 14an, 75 urte zituela.

Farmazia Goardiak

EGUNEKOAK: 09:00-22:00

Ostirala, 1 Rodríguez, Kale Nagusia 42 atzea	943 361774
Larunbata, 2 Orue, Jaizkibel plaza 2	943 362652
Igandea, 3 Orue, Jaizkibel plaza 2	943 362652
Astelehena, 4 De Miguel, Kale Nagusia 32	943 371151
Asteartea, 5 Acha-Orbea, Hipodromo et. 6	943 363549
Asteazkena, 6 Urbistondo, San Frantzisko 1	943 366567
Osteguna, 7 Gandarias-Urbe, l. de Loyola 9	943 019521

GAUEKOA: 22:00-09:00, egunero

Aldabe, Perkaiztegi 8
Hernani, Tel.: 943 336 022

Udalaren telefonoak

Erregistroa	943 376055
Euskarako Zerbitzua	943 376184
Kiroldegia	943 376182
Kulturrexea	943 376181
Gizarte Zerbitzuak	943 376179
KIUB	943 361605
Udal euskaltegia	943 361621
Munteri AKE	943 372863

Larrialdi telefonoak

Osasun Zentroa	943 007960
DYA	943 464622
Gurutze Gorria	943 363953
Udaltzainak	943 362442
Ertzaintza	943 288888
SOS Deiak	112

Diruz laguntzen duten erakundeak

Babeslea



Lasarte-Oriako Udala

Txintxarrik ez du bere gain hartuko iritzi-artikuletan edota irakurleen gutunetan adierazitakoaren erantzukizunik.

Laguntzailea



Argitaratzailea:

Ttakun Kultur Elkarte
Geltoki kalea 4
20160 Lasarte-Oria
943 366 858/943 371 448
G-20407557

Legezko gordailua:

SS513/93
ISSN: 1134-0053

Inprimategia

Zeroa Multimedia, S.A.

Aleak zenbakiko: 7.800

txintxarri

Erredakzioa:

Nerea Ezaguirre, Jon Altuna I., Maider Azurmendi, Jon Altuna E.

txintxarri.info

Publizitatea eta administrazioa:

Arantza Artola
publizitatea@ttakun.com
administrazioa@ttakun.com

Laguntzaileak:

Unai Muñoa, Gorika Lasa, Ane Labaka, Mailu Armuti, Asier Odriozola, Jone M. Hernandez, Oihana Salazar, Pako Aizpirtate, Edu Galardi

Informatikoa:
Xabier Amadoz

ERRAUSKAILUA

Proiektua uzteko eskaera

Zubieta inguruko alkateek errauskailuari buruzko iritzia eman zuten

Zubieta inguruko herrietako alkateek errauskailurik nahi ez dutela argi utzi zuten atzo Zubietako pilotalekuan eskainitako prentsaurrekoan. Era berean, erakundeek proiektua bertan behera uztea eta herritarrei arduraz jokatzeari eskatu zieten.



Herrietako alkateak eta Zubietako herri batzarreko kidea prentsaurrekoan.

Ana Karrere Andoingo alkatea, Andoni Gartzia Astigarragako alkatea, Pablo Barrio Lasarte-Oriako alkatea, Nora Galparsoro Donostiako Udaleko zinegotzia Juan Karlos Izagirre Donostiako alkatearen ordez, Alazne Olaizola Zubietako auzo herriko alkatea, Luis Intxauspe Hernaniko alkatea, Mertxe Aizpurua Usurbilgo alkatea eta Joxeli Aroztegi Zubietako herri-batzarreko kidea izan ziren atzo Zubietan egon zen agerraldian.

Honetan, haien herritarrekiko duten ardura kontuan izanik, errausketa plantari buruzko eztabaida publikoan parte hartzea behartuta sentitzen direla jakitera eman zuten.

Errausketa plantako lanak geldirik egon arren, inguruko herrietatik mehatxua dela eta proiektua behin betiko amai-

tzeko garaia dela ondorioztatu dute alkateek.

Ikerketen ondorioak

Horretarako, osasunarengan errausketak izan ditzakeen ondorioak gogoratu "patologia desberdinak" eta berriki aurkeztu den Madrilgo Carlos III institutuko ikerketaren aipamena egin zuten. "Errausketak nabarmen handitzen du minbizia izateko aukera".

Horren ondorioz, errauskailua hondakin arazoaren konponbidea ez dela eta are gehiago pertsonen osasunerako eta ingurumeneko mehatxua dela azpimarratu dute, "herritarrek ez dute halakorik merezi, inork ez du halakorik merezi".

Beraz, mezu garbia eskai-

ni zuten, "errauskailurik ez, ez Zubietan, ez Donostian, ez Beasainen... ez dugu errauskailurik nahi inon ez".

Deia eta eskaera

Era honetara, Zubieta inguruko alkateek Gipuzkoako herritarrei deia egin zieten "arduraz joka dezagun, ikerlarien iritzia kontuan izan eta utz dezagun behingoz eta behin betirako errausketaren aukera".

Eta Gipuzkoako Ordezari politikoa eta erakundeei ere eskaera zehatza egin zitzaion, "berma ezazue herritarren osasunerako eskubidea eta bukatutaz eman ezazue lehen bait lehen errauste planta egiteko proiektua. Alternatibak egon badaudelako".

Sorgin Jaiek funtzionamendu berria

Sorgin Jaiek funtzionatzeko modua iraultzeko asmoa agertu dute. Orain arte festa alternatiboak antolatzekeo helburuarekin gazte talde bat biltzen zen eta programa talde txiki honen labean egosi eta gero, koadrilaz koadrila joan ohi ziren ekintza bakoitza egiteko prest nor egongo zen galdetu eta egitarauari lotutako gauzak proposatu azmoz.

Aurten ordea, aurrera pauso bat eman nahi dute. Antolaketa konpromisoa herritar guztiei zabaltzea dute xede, ez dute lasarteoriatarrek Sorgin Jaiek gazte ikuspuntu soil batetik ikusterik nahi.

Eta euren leloari jarraiki "herritik, herriarentzat" haur, heldu eta adinduak ere festaren antolakuntzan parte aktibo izaten eta ekintzak euren kabuz antola ditzaten bilatzen dute.

Hemendik aurrera, Sorgin Jaiek "koordinazio gune" bat



Sorgin Jaiek osatzen duten koadriletako kide batzuek brusekin murala egin zuten.

izango da, adin talde guztiak herritarrengandik eratorritako ideia horiek komunean jarri eta elkarren artean eztabaidatzeko funtzioa izango duena.

Baina ekintza bera, koadrilaren esku egotea nahi dute, ekimena euren eraginez sortzea, Sorgin Jaiek zer proposatuko zain egon gabe.

BIYAK BAT

Iratxera irteera

Biyak Bat elkarteak 2013. urteko irteerei hasiera emango die martxoaren 21ean. Oraingoan, Lizarraldera egingo dute, zehazki Iratxeko monastegira.

Izena ematea hurrengo astelehenean martxoaren 4an irekiko da goizeko 10:30ean. Txangoan parte hartu nahi dutenek Biyak Bat elkarteke bulegoan eman behar dute izena, 10:30etik 12:30era. Irteeraren prezioa 34 eurokoa izango da elkarteke bazkideentzat eta bazkide ez direnek, aldiz, 38 euro ordaindu behar dituzte.


DANOK KIDE

Gitarra emanaldia gaur komentuan

Danak Kide elkarteak antolatzen duen VIII. Musika Topaketetaz gozatzen duten herritarrek hitzordu berria dute, gaur arratsaldeko 19:30ean Ama Brigitarren komentuko kaperan. Oraingoan, Eduardo Baranzanok zuzendutako "Ehun-Ari Guitarras D+" Nafarroako Goi mailako eskolako gitarra taldea entzuteko aukera izango da.

Hamabi ikasleez osatutako talde honek doinu klasikoez gain, talde kideek bakarlarientzat edo taldearentzat konposatutako lanak eskaintzen ditu bere emanaldietan. Izan ere, helburua ez da gitarra jotzaileak egitea, hauek sortzailegoak izatea baizik.

Lasarte-Oriako kontzertura hurbiltzen direnek beraz, Boccherini-ren "Fandangoa" edo Mertz-en "Fantasia húngara" entzungo dute, baina baita Imanol Solores, Javier Lizalde, Carlos Onis edo Carlos Turullols taldeko kideen obrak ere.



EKOZINEMALDIA

Ondorioak eta zailtasunak aztertzen

Ekologistak martxan elkarteak antolatzen duen Ekozinemaldiko VII. edizioko hainbat film ikusi ahal izan dira aste honetan herrian Lasarte-Oria Bizirik taldearen eskutik.

Zor ekologikoa oinarri duten filmak ikusi ahal izan dituzte astelehentik asteazkenera eskaini dituzten saioetara hurbildu diren herritarrek.

Herrialde industrializatutako multinazionalak edo gaur egun dugun kontsumo gizarteak hainbat herrietan eta kulturetan hala nola, Estatu Batuetan, Peru, Somalia edo Ekuador izan ditzakeen eragina edo sortu ditzaketen kalteak aztertzekeo aukera izan da film hauen bitartez.

PSE-EE

Froilan Elespe izena PSE-EEren egoitzarentzat

Lasarte-Oriako PSE-EEko egoitzari Froilan Elespe izena eman diote herriko sozialistek. Ohar baten bitartez, herriko alderdiko afiliatuek azken batzarrean hala erabaki zutela jakitera eman du Jesus Zaballosek PSE-EEko bozeramaileak.

Erabakia omenaldi modura hartu nahi izan dutela adierazten da Jesus Zaballosek sinatutako idatzian eta alderdikideek aho batez erabaki zutela dio.

Hemendik aurrera sozialisten Froilan Elespe egoitza, "inoiz baino gehiago sozialistentzat topagune izatea nahi dugu, ideia eta iritzirik trukatzeko gune irekia gizarte justuago baten alde egiteko".

Froilan Elespe zinegotzia ETAk 2001. urtean hil zuen Lasarte-Oriako taberna batean. Elespek alderdiaren baitan eta herrian egindako lana eredugarria izan zela azpimarratzen dute besteak beste oharrean.

Era berean, Froilan bezalako pertsonekin PSE-EEk zorra daukala diote izan ere "honek herrian egindako lana eredugarria izateaz gain, ona eta jendearen aldekoa izan zen beti, herritarren ongizatearen pentsatzen".

Pyrenaeus sarea osatzen

► *Ganbo Iturri elkarteak aurkeztu du eta harreman eusko-pirenaiko historikoan du jatorria*

Ganbo Iturri Kultur elkarteak urte beteko du laister Lasarte-Orian eta ibilbide honetan egindako lanaren fruitu izanago da martxoan zehar antolatutako hitzaldi sorta. Elkartearen baitan garatzen ari diren lehenengo egitasmoa "Pyrenaeus sarea" deritzon proiektua da. Komunitate pirenaiakoak eta euskal lurraldeak izan duten elkarrekotasun kulturala aztertzea du xede. Hitzaldiak elkarteak kale nagusian duen egoitzan izango dira 19:00etan, azken saioan, 24an ibilaldi kultural bat antolatu dute sustatzaileek.

Maidar AZURMENDI

Ganbo Iturri kultur elkarteak urte bete darama lanean Lasarte-Orian. Natxo Izeta herritarra da elkarte honen lehendakaria.

Natxo Izetak gidatuta, Joxean Rekondo, eta Enrique Ayerbe geografoak hitzaldia eman zuten Kale Nagusiko 3. eneko egoitzan euren lehenengo egitasmoaren berri emateko asmoz "Pyrenaeus sarea".

Egitasmoari lotuta, martxoan zehar burutuko den hitzaldi sortaren berri eman zuten agerraldi honetan ere egitaraua aurkeztuz.

Elkartea urte bete da sortu zela herrian Izeta bere lehendakariak azpimarratu moduan. Ganbo Iturri izenak gainera badu Lasarte-Oriarekin lotura "Brigitarren komentua dagoen plazan kokatzen zen iturri bat zen eta gure elkarteari izen hau ematea polita iruditu zitzaigun, leloak ere asko adierazten du egin nahi dugun lanaz, iturri zaharretik beti ur berri".

Komunitateari arreta

Aurkeztutako lehen proiektuak komunitate pirenaiakoak eta euskal lurraldeak izan duten elkarrekotasun kulturala aztertzea du xede.

"Komunitate hauen artean sortu diren sinergiak ezagunak dira: besteak beste kultura euskalduna, kataluniarra, okzitaniarra, erro historiko komunak dituzte, eta baita instituzio elkarbanatuak ere, Piriniotako lan komunitatea esaterako, lurraldetasuna".

Izan ere, elkarteak sustatuko duen lehen egitasmoa da hau elkartearen baitan dio Natxo Izetak.

Ganbo Iturri elkartearen ustetan euskal eta pirinio arteko loturak garrantzia geoestrategiko handia du euskal nortasun eta interesak Europan ezagutzera eman daitezkeen.

"Pyrenaeus Sareak" gizartean egin nahi du lan" diote sustatzaileek.

Ganbo Iturri lan egin nahi du besteak beste "euskal gizarteak berreskura ditzan historikoki gure izaerari lotu izan den indarra eta sormena".

Txikiaren garrantzia

Globalizazio handiagoa den neurrian, gizarte dinamikoe-



Ganbo Iturri kultur elkartearen egoitzan aurkeztu zuten Pyrenaeus egitasmoa.

neurrian, gizarte dinamikoe- nek dute honetan eragiteko gaitasuna egitasmoaren sustatzaileen ustetan. Hau dela eta, euskal gizarte dinamikoak izan dadin, "Pyrenaeus sareak" gure kultura promozionatzeko asmoa du ere.

Hau egiteko eskura dauden teknologia berriak, Internet eta jardunaldiak tresna moduan erabiliko dituzte.

"Pyrenaeus sarea"-ren helburua Euskal Herri osora zabaltzea da baina momentuz Gipuzkoa, Bizkaia eta Nafarroan dago presente. Sarea internet bidez dago eraberrita www.pyrenaeus.org webaren bitartez, www.pirinioak.org eta www.elpirinio.org.

Hauetan bazkideek euren gunea berezitua dute Talaiak izenarekin "bazkideen harremanak sartzeko, lotzeko gunea da eta hiru atal nagusi daude bertan, berriak, dokumentuak eta ikasgunea".

Jardunaldiak Lasarte-Orian

Elkarteak lehenengo jardunaldiak Lasarte-Orian burutuko ditu martxoaren 5etik 24ra bitartean. Hauen Ganbo Iturri elkartearen egoitzan izango dira, Nagusia 3 zenbakian, 19:00etan hasita.

Herritarrek hauetan parte hartzeko deia egin du Izetak eta honen inguruan kezka edo informazio gehiago nahi duten herritarrentzat eskura dute ganboiturri@gmail.com helbidea.

Ganbo Iturri hala definitzen dute sustatzaileek "Euskal tradizioarekin bat eginen duen gizarte konpromisoa da. Ganbo Iturriren xedea definitzen duen ezaugarria egunerokoaren ardura izanez, auzolanaren bidez, gizartearen integrazioa du zeregin, pertsonen balioetan oinarritzen den komunitate baten alde ariko da, lankidetzako nagusitzea lehenetsiz, autogobernua eta justizia sozialaren bila".

"Pyrenaeus sarea"

Martxoak 5

Enrique Ayerbe geografoa, "Hautu pirinioarraren balio geoestrategikoa".

Martxoak 7

Manu Gonzalez medikua, "Gizakian oinarritutako kirola; gizatiartzeko gaitasuna daukan kirola".

Martxoak 13

Jose Mari Larramendi enpresaria, "Lana da erabakigarria, kapitala berriz bitartekoa".

Martxoak 20 Xabier Barandiaran soziologoa, "Zer du eta zer behar du gure nortasun kolektiboa gure herriak behar duen garapeneren motore bezala aritzeko?"

Martxoak 24 igandea, jardunaldiak amaitzeko ibilaldi kulturala eta bazkaria antolatu dute.

Atsobakar zahar egoitzako langileak grebarekin bat

Gipuzkoako zaharren egoitzetan hiru egunetako, asteazkenetik ostiralerako greba egiteko deialdia egin zuten ELA eta LAB sindikatuek. CCOO eta UGTk ere greba deitu zuten asteazkenean eta elkarretaratzea egin zuten Adegiko egoitzaren aurrean nahiz eta euskal sindikatuen deialdiarekin bat ez egin.

Lasarte-Orian ere greba horrek jarraipena izan zuen. Izan ere, Atsobakar egoitzako langileek bat egin zuten grebarekin eta haiek azaldu moduan, jarraipena erabatekoa izan da eta zerbitzu minimoak beteko dituzte hiru egun hauetan.

Gainera, Zerbitzu minimoek kubritzen ez dituzten

lanpostuak ez direla bete azaldu digute egoitzatik.

"Aldundiarekin adostutakoak, eta hauekin kubritzen ez diren lanpostuetako langileak ez dira lanera etorri," adierazi dute.

Langileen baldintzak

Zaharren egoitzetako langileei estatuko lan erreforma aplikatu nahi diete, eta horrek uztailetik aurrera hileko soldatan 400 euroko jaitsiera ekarriko liekela diote sindikatuek. Gainera, zahar egoitzeko langileek urtean 200 ordu gehiago egin beharko litzukete lanean.

Urriaren egoerari irtenbidea bilatzeko langileen ordezkarien eta patronalaren artean

negoziazio mahai bat sortu zela adierazi dute, baina hila-bete hauetan ez dira adostasunera iritsi.

Foru Aldundiak 8,2 milioi euroko eskaintza egin duela jakitera eman du datoen bi urteetan, langileen soldatak eta baldintzak bermatzeko.

Erakundeak bere nahia gatazkarekin ahalik eta lasterren bukatzea dela azaldu arren, sindikatu eta Adegiren jarraiek adostasunetik urrun daude.

Aipatutako akordioa iritsi ezean, datoen asteetan grebarekin jarraitzeko asmoa dutela jakitera eman dute sindikatuek "eta hauekin bat egingo dute Atsobakar egoitzako langileek ere".



Atsobakar egoitza aurrean euren aldarrikapena jarri dute langileek.

Yaiza Ruiz eta Aitor Sanchez "Oporrak Bakean" programako harrera familia kideak

"Guztia elkarbanatzen dute"

- "Oporrak bakean" egitasmoko familiek kanpamentuetara egiten dituzte bidaiak
- Hauren familiekin bizi dira eta kanpamentuetako errealitatea ezagutzen dute

Saharako errefuxiatu kanpamentuetan egun dagoen egoera ez da xamurra. Ez dira bisatuak ematen eta atzeritarrek oso zaila dute bertara hurbiltzea. Urtero egiten den Sahara Maratoia ez da aurten antolatu eta aste honetan "Oporrak Bakean" proiektuaren barruan harrera familiek Aste Santuan egiten dituzten bidaiak ere bertan behera geratu dira. Herrira urtero zappi edo zortzi haur saharar etortzen dira uda gure artean igarotzera. Aurten harrera familiek ezingo dituzte bisitatu.



Yaiza Ruiz saharar kanpamentuetan izan zen bere mutil lagunarekin. Argazkian, Yaiza Mohamedekin atzean Daura dahira. YAIZA RUIZ

Nerea EIZAGIRRE

Oporrak bakean" egitasmoko auren barruan haur sahararriaren harrera familiek hauek ikustera joateko aukera izaten dute urtean behin. Bertan haiekin bizi eta hango errealitatea ezagutzen dute. Lasarte-Oriako harrera familia kidea den Yaiza Ruiz eta haren mutilarekin, Aitor Sanchez-ekin izan gara haien esperientziari buruz gehiago jakiteko.

Noiz egin zenuten kanpamentuetara bidaiak?

2011. urteko uda izan zen Teslem gure etxera etorri zen lehen aldia. Urte horretan, abenduko zubian egin ohi den bidaiaz baliatu eta kanpamentuak bisitatzera joan ginen.

Zein kanpamentutan egon zineten?

Tindouf-eko errefuxiatuen kanpamentuak Aljeriako hegoaldean daude, "hamada" deitzen den eremuan.

Kanpamentu bakoitza edo wilaya nukleo txikiagotan banatzen da, dahira. Kanpamentuek Mendabaldeko Saharako hiriburuen izenak dituzte: El Aiún, Auserd, Smara y Dajla.

Kanpamentuetara zoazenean haurraren familiaren etxean egiten duzu lo eta hiekin egiten duzu bizitza. Teslem eta bere familia El Aiún-eko kanpamentuan bizi dira eta zehazki Daura dahira-n.

Aipatu bezala, haiekin bizi zineten. Nolako da haien bizitza?

Normalean familiek oihalezko jaima bat dute udan lo egiteko eta berotik babesteko. Neguan, adobeko etxe bat dute.

Biek gela bakarra dute, bertan alfombra bat dago eta

hor egiten dute bizitza, lo, jan edo jolasten dute.

Teslem-en familia bere guraso, hiru anai-arreba, osaba-izeba, lehengusu eta aitona osatuta zegoen.

Bere familia gaztea da. Bere amak 27 urte ditu eta kanpamentuetan jaiotako da, ez du inoiz basamortutik harago dagoen ezer ikusi. Bere aitak, Mohamed-Ahmed Mendebaldeko Saharako kanporatzea bizi izan zuen eta egunak lan egin gabe pasatzen ditu.

Bizitzak erritmo lasaia du kanpamentuetan.

Zein egoeratan bizi dira?

Errefuxiatu helduek ez dute ia ezer egiten egunean zehar. Kanpamentuen egoera, basamortuak eta ibairik edo iturrik ez egoteak, ez du lurra lantzea ahalbidetzen.

Medikuak, irakasleak, taxistak, gameluak zaintzen dituen jendea dago, etb. baina gutxi dira lan egiten dutenak.

Haurrak ordea, sei egunetan doaz madrasa-ra. Eskola da eta honetan kanpamentuetatik kanpo dagoen mundua ezagutzen dute.

Eskola hauetan edo ospitaleetan, esate baterako, kanpamentuetara ahal dutena eman edo laguntzera doazen bolondresak daude.

Zein leku bisitatu zenituzten bertan?

Gure hizkuntza hitz egiten zuen inor ez zela egongo uste genuen, baina zortea izan genuen eta Teslem-en izebetako batek, 16 urtekoak, Galizian 5 uda egin ondoren

gazteleraz ongi moldatzen zen.

Bere esku kanpamentuetan dauden leku interesgarri eta urriak ezagutu genituen. Urri-tasun mentala duten pertsonentzako zentro batean izan ginen, Daurako eskola, gazteentzako lanbide heziketa zentroa, osasun zentroa, etab.

Hauek guztiak Erkidego ezberdinetako laguntza jaso eta kanpoan erakunde horien plakak zituzten. Izan ere, hauen laguntzarekin sortzen dira horrelako zentroak eta mantentzen dira. Baina hauek ez dira errefuxiatuen kopururako nahikoak ez tamaina,

ezta beharrezko baliabidetan ere.

Zer da gehien harritu zintuztena? Zergatik?

Gehien harritu ninduen jendearen poza da. Nahiz eta egoera txarrean bizi, beti dute irribarrea ezpainetan eta batez ere, haurrek.

Daukaten guztia elkarbanatzen dute. Ateak irekiak dituzte edonorentzat. Bizi garen mundu berekoiairekin alderatuta, harrigarria da zenbat eta gutxiago izan, gero eta gehiago elkarbanatu eta ondokoak ere gauzak izateaz arduratzen zarella.

Zer nolako laguntzak iristen zaizkie?

Errefuxiatuek laguntza humanitarioetatik bizi dira. NBEko erakundeetatik, arroza, lekak, arraina kontserban, pasta, azukrea, irina eta olioak jasotzen dute. Menuak hidrato asko ditu eta bitamina gutxi. Dietak bizirik irauteko balio du, baina ez garapen fisikorako.

ACNUR-en datuen arabera, errefuxiatuei banatzen zaizkien hileroko produktuak, behar dituztenen %50a baino gutxiago da.

Nola antolatzen dira kanpamentuak laguntza horiek banatzeko?

Elikagaiak familia bakoitzak duen kuotaren arabera banatzen dira. Horrela errazionamendu-liburuxka antzeko bat dute, familiaren kopuruaren arabera, heldu, zein haurrak kontuan izanik, jasotzen dute janaria.



Sahararekin elkartzasuna.- Asteazkenean, otsailak 27, Sahara Errepublika Arabiar Demokratikoa aldarrikatu zeneko urteurrenarekin bat eginez, Mendebaldeko Saharako bandera egon zen egun osoan zehar Udaletxeko balkoian. Arratsaldean, berriz, elkarretaratzea egin zen Udaletxe aurrean. "Maroko Saharatik at! Autodeterminazioa eta independentzia" lelopean bildu zen hainbat herritar, Pablo Barrio alkatea eta Bilduko eta PSE-EEko hainbat zinegotzi. Pankartaz gain, bildutakoek giza eskubideen aldeko 24 aktibistek egindako epaiketa militarra eta ezarritako zigorra salatzen zituzten kartelak ere erakutsi zituzten. Ekimen hauek otsailaren 12an egindako Udaltzarrean onartu ziren, Mendebaldeko Sahararekin bat taldeak sustatutako mozioa izan zen.

JUDO.A.-

Esteban Martinez Euskadiko txapelkun orde

Borrokako senior eta kadete mailako Espainiako txapelketan hiru brontze lortu zituzten LOKEko judoek

LOKEko judo ataleko gazteek judo eta borroka lehiaketak izan zituzten lehengo asteburuan. Juniorrak Euskadiko judo txapelketan izan ziren, senior eta kadeteak Estatuko borroka txapelketan eta txikienek alebinek Gipuzkoako txapelketarako sailkapen saioa izan zuten. Guztietan emaitza onak izan zituzten, baita hainbat domina ere.

Nerea EIZAGIRRE

L OKEko judoek asteburu ona izan dute. Hiru txapelketetan parte hartu eta hiruretan helburua lortu dute, gazteek dominak eta alebinek Gipuzkoako txapelketarako txartela.

Larunbatean, otsailaren 23an junior mailako Euskadiko txapelketa jokatu zen Lezon. Bertan LOKEko bi judoka Esteban Martinez eta Josu Olmos izan ziren lehian eta biek dominak eskuratu zituzten, bata zilarrezkoa eta bestea brontzezkoa.

Esteban Martinezek lortu zuen zilarrezko domina eta Euskadiko txapelkunordetza.

Gorka Aristegi entrenatzailearen hitzetan, "bere txapelketa espektakular izan zen. Bi borroka irabazi ondoren, finalen azken momentuan galdu zuen".

Gainera, postu hau lortzeagatik Espainiako txapelketako ipar eremuko sailkapen saiorako txartela eskuratu duela jakitera eman digu LOKEko entrenatzaileak.

Eta Josu Olmosek, berri, brontzea eskuratu zuen. Borroka bat irabazi eta bestea galdu arren, final erdian sartu zuen Olmos gaztea.

"Dena ondo zihoanean akats bat egin eta galdu zuen. Lastima," azaldu du Aristegi entrenatzaileak.



Esteban Martinez, Josu Olmos eta Aristegi entrenatzailea txapelketan lortutako dominekin.

Borroka txapelketa

Bestalde, egun berean kadete eta senior mailako Borroka Libre modalitateko Espainiako txapelketa jokatu zen Murztian.

LOKEko Amaia Curiel, Fermin Balda eta Orscar Garrido izan ziren bertan eta hirurek brontzezko domina lortu zuten.

Senior mailan, Amaia Curiel izan zen lehiatzen bakarra. 63 kiloko mailan borrokatu zen herritarra. Final laurdenetan galdu ostean, 3. postuko borrokan ez zuen huts egin eta brontzezko domina eskuratu zuen.

Kadete mailan, aldiz, Fermin Balda eta Oscar Garridok parte hartu zuten.

Balda 69 kiloko mailan lehiatu zen. Final laurdenetan erori eta 3. postua eskuratzeko bi borroka irabazi behar izan zituen.

Eta 85 kiloko mailan izan zen Garrido hirugarren. Honek ere final laurdenetako borroka galdu eta 3. postuko borroka irabazi zuen.

Alebinek primeran

Igandean, berri, Tolosan alebin mailako Gipuzkoako txapelketarako sailkapen saioa izan zen.

Bertan Jone Kastro, Elene Arruti, Iker Sanchez, Ander Garrido, Jesus Curiel, Omar Jassane, Erik Bermejo, Manu Revuelta, Alex Saleta, Gari-koitx Mena, Sergio Faro, Ibai Aranguren, Joseba Rodriguez, Unax Pikabea eta Mikel Eizagirrek parte hartu zuten jardunaldi honetan.

Gorka Aristegi entrenatzaileak adierazi digunez, ederki egin zuten borroka eta guztiek lortu zuten Gipuzkoako txapelketarako sailkapena.

KIROL AGENDA.-

FUTBOLA

Larunbata 02
Michelin, 11:30ean
 Ostadar-Getxo
Kadeteen Ohorezko maila, Euskal Liga
Urnieta, 12:00etan
 Urnieta-Ostadar I. Kadetea, kopa
Michelin, 14:00etan
 Ostadar-Euskalduna
Infantilen Ohorezko maila, kopa
Trintxer, Trintxerpen, 14:00etan
 Trintxerpe-Ostadar I. Infantilak, kopa
Michelin, 15:30ean
 Ostadar-Beasain
Jubenilen Ohorezko maila
Asti-Txiki, 15:30ean
 Zarautz-Texas Lasartearra
I. Erregionala, kopa
Michelin, 17:15ean
 Ostadar-Berio
Erregional Ohorezko maila
Arizti-Handi, Lazkao, 17:30ean
 Lazkao-Ostadar Infantil Txiki, kopa
Rezola, Añorga, 19:30ean
 Añorga-Ostadar
I. Erregionala, igoera

Igandea 03
Michelin, 10:30ean
 Ostadar-Intxaurre I. Jubentia, kopa
Usabal, Tolosa, 09:45ean
 Ostadar-Hernani Alebina



ARETO-FUTBOLA

Larunbata 02
Azpeitia, 16:45ean
 Azpeitiko-ISU Leihokak Gipuzkoako Liga
Olaranbe kiroldegia, Gasteiz, 18:30ean
 Aurrera Vitoria-Aldaz H.K.
Nazional B maila

SASKIBALOA

Larunbata 02
Antzitzar Kiroldegia, Beasain, 10:50ean
 Arri-BKL-Ostadar
Kadete neska, partehartzea
Kiroldegia, 11:30ean
 Landaberri-Hondarribia-Irun
Infantil txiki neska, partehartzea

PILOTA

Larunbata 02
Añorga, 15:30ean
 Añorga 2-Intza Eskuz binaka, II. kadetea
Kirol guneko pilotalekua, 16:00etan
 Intza-Hernani 5 Eskuz binaka, infantilak
Kirol guneko pilotalekua, 16:00etan
 Intza-Gazteleku 2
 Eskuz binaka, II. jubentia
Kirol guneko pilotalekua, 16:00etan
 Intza-Tartalotxe
 Eskuz binaka, I. jubentia

IGERIKETA

Osteguna 28-Igandea 03
Palma de Mallorca
 Buruntzaldea IKT-ko Iñigo Ibarburu

eta Itsaso Tolosa infantil eta junior mailako Estatuko Neguko Txapelketan izango dira lehian.

GIMNASTIKA

Larunbata 02
Hernani, 16:00etan
 LOKEko infantil taldeak
 Eskolarteko b mailako txapelketako lehen jardunaldian parte hartuko du. 5 uztaikein egingo dute lan.

ATLETISMOA

Larunbata 02-Igandea 03
Antequera
 LOKEko Maria Eugi, Itoitz Rodriguez, Ane Galardi eta Yeray Veroniz atleta gazteak jubentia mailako Estatuko txapelketan izango dira lehian.

Larunbata 02

Donostia, 11:00etan
 Herriko hainbat emakume 24. Lilatoian parte hartuko dute.
Antonio Elorza belodromoa, Donostia, 10:30ak
 Lasarte BHI, Landaberri eta Sasoeta-Zumaburu ikstetxeetako gazteek proba konbinatueta hirugarren jardunaldia dute.
Ibaeta, Donostia, 17:00etan
 Herriko hainbat atletek Ibaetako X. Jailetako krossean parte hartuko dute.

Igandea 03

Azpeitia, 10:00etan
 Herriko hainbat atletek zuzenian Igoera bertikala proban parte hartuko dute.

JUDO

Larunbata 02
Madrid, egun osoa
 LOKEko Hondarribiko Ama Guadalupeko taldearekin junior eta senior mailako Estatuko Liga nazionalako jardunaldian parte hartuko dute.



Durango, 09:30etik aurrera
 LOKEko alebin, infantil eta kadete mailako judokak Durango Uria nazioarteko txapelketan izango dira lehian.

ERRUGBIA

Larunbata 02 eta Igandea 03
Pau, Frantzia
 Beltzak Ostadar Jalai errugbi eskolako infantil federatu eta eskolarteko infantiletako gaztetxoak Zarauzko eskolarekin batera Torneo batean parte hartuko dute.

Igandea 03

Kirol gunea, 09:00etan
 Beltzak Ostadar Jalai errugbi eskolako maila guztiek entrenamendua izango dute.

TXIRRINDULARITZA

Larunbata 02
Atsotakar parkea, 11:00etan
 Bazpi Txirrindularitza eskolako kideek alebin eta infantil mailako haurrekin saioa egingo dute.
Atsotakar parkea, 16:30ean
 Bazpi Txirrindularitza eskolako infantil mailako gaztetxoak Hondarribia Saria proban izango dira.

Igandea 03

Eibar, 10:30ean
 Bazpi Txirrindularitza eskolako jubentiek XXXVI Udaberri Oroimenezkoa proban parte hartuko dute.



BOLA-JOKOA

Igandea 03
Añorga, 10:00etan eta 16:30ean
 Ostadar SKT-ko bola-joko taldeak Lehendakari txapelketako lehen jardunaldia jokatu du.

Agenda

Gaur ostirala 01, 19:30ean, Ama Brigitarren komentuan



Gitarraren hotsak

Ehun-Ari Guitarras D+ Nafarroako Goi mailako kontserbatorioko gitarra taldeak kontzertua eskainiko du, Danok Kide elkartearen VIII. Musika topaketen barruan. Ohiko errepertorioaz gain, taldeko parteideek konposatutako lanak, bai bakarlarientzat, baita talderako obrak ere eskainiko dituzte. Taldearen zuzendaria Eduardo Baranzano gitarra irakaslea da.

kaz gozatzeko aukera. Sarrera, aurretik 5 euro, leihatilan 7 euro.

Hitzaldiak

GANBO ITURRI ELKARTEKO EGOITZA

Asteartea 05, 19:00etatik aurrera

"Pyreneaeus" sarea hitzaldi zikloaren barruan, Enrique Ayerbe geografoak hautu pirinioarraren balio geoestrategikoaz mintzatuko da.

Osteguna 07, 19:00etatik aurrera

"Pyreneaeus" sarea hitzaldi zikloaren barruan, Manu Gonzalez medikuak "Gizakian oinarritutako kirola; gizatiartzeko gaitasuna daukan kirola" hitzaldia eskainiko du.

Erakusketa

MANUEL LEKUONA KULTUR-ETXEA

Ostirala 15-Astelehena 01

Paco Altuna herritarren arte lanak ikusgai izango dira.

Lasarte-Oria

Zinea

MANUEL LEKUONA KULTUR-ETXEA

Igandea 03, 17:00etan

Haurren zinea atalean, "Jacobó el Lobo" filma ikusgai izango da. Sarrera, leihatilan 3,60 euro; internet bidez, 3,18 euro.

Osteguna 07, 21:30ean

Ostegun zinea atalean, "Si de verdad me quieres..." filma ikusgai izango da Okendo Zinema taldearen eskutik. Sarrera, leihatilan 4,65 euro; internet bidez, 4,24 euro.

Andaluzia eguna

SEMBLANTE ANDALUZ ELKARTEAREN EGOITZA

Ostirala 01, 19:00etatik aurrera

Elkarteko Azabache taldearen dantza emanaldia eta ostean, Merche Montes abeslariaren kontzertua izango da.

Larunbata 02, 17:00etatik aurrera

Elkarteko Gitanillos del Alba, Duende Flamenco eta Zambra haur, gazte eta helduen taldeen dantza emanaldia. Ostean, haurrentzako txokolate gozoa dastatzeko aukera.

Igandea 03, 11:30ean

Meza rocieroa Semblante Rociero abesbatzak girotua, **ARANTZUKO AMAREN ELIZAN.**



14:00etan, udal ordezkarien harrera egin eta ereserkia abestuko da. Ondoren, bazkari herrikoa egingo dute.

19:00etan, dantzaldia izango da.

Musika

ABEND KAFE-ANTZOKIA

Ostirala 01, 23:45ean

"Bloody Brotherhood" eta "Continuo renacer" taldeen eskutik metal musi-

Elkartasuna

MANUEL LEKUONA KULTUR-ETXEA

Larunbata 09, 16:30ean eta 19:00etan

Aitor Landa herritarra laguntzeko Pirritx, Porrotx eta Marimototsek haien 25. Urteurrena ospatzen duen "Sentitu, pentsatu, ekin" emanaldia eskainiko dute. Bi saio izango dira eta Kukuka antzerki eta dantza eskolako dantzariak eta Jalgune elkarteko lagunak ere izango dira bertan. Sarrera, 7 euro.



Herritarren txokoa

Ostadar SKT-eko bulego ordutegi aldaketa

Ostadar SKT-ko bulego ordutegia aldatzen da. Bulegoa 18:00etatik 20:00etara egongo da irekia astelehenerdik ostiralera.

Donostiako Kantu Jiran eskertza eta aurkitutako gauzak

Donostiako Kantu Jiraren 10. urteurrena ospatzeko jaialdia egin zen otsailaren 16an eta antolatzaileek eskerrak eman nahi dizkiete honetan parte hartu zutenei.

Era berean, emakumezko lepo-zapi bat eta linterna bat jaso zituztela jakitera ematen dute.

Galdutako gauzak

Udaltzainek jakitera eman dutenez, gauza hauek daude jasota, ezkontza eraztuna, bi ordulari, sei betaurreko graduatu, patinet bat, euritako anorak bat eta bost mugikor.

Gauza hauen jabeak direla egiaztatzen duten herritarrek, hilabeteko epean jaso behar dituzte. Horietakoren bat ikuskatzeko interesaturik dauden pertsona gutziei eska-

tzen zaie Udaltzainek Bulegora hurbil daitezela, 09:00etatik 13:00etara.

Biyak Bat elkarteko kuota

Biyak Bat Erretiratuen elkarteak bere bazkideei jakin arazten die urteroko kuota, 8 euro, martxoa amaiera arte ordaindu ahalko dela egoitzako bulegoan goizeko 10:30etik 12:30era.

Era berean, hiru hilabete hauetan, 2011 eta 2012 urteko bazkidetza ordaintzen ez dutenei baja emango zaiela jakitera ematen du elkarteak.

85 urtetik gorako bazkideek ez dute ordainketarik egin behar.

Marrazki eta margo klaseak

Lasarte-Oria Bizilagun Elkarteak jakinarazten du, marrazki eta pintura klaseetan izena emateko aukera dagoela. Klaseak asteazken eta ostiraletan dira, 18:30etik 20:30era Manuel Lekuona kultur-etxeko 2. solairuan. Interesa duten herritarrek gerturatu daitezela klase orduetan.

Hemeroteka

Duela 1053 ale

Egun Euskal selekzioko entrenatzaileen den Mikel Etxarri 1995ean Errealeko idazkari tekniko izendatu zuten. TXINTXARRI aldizkariak harekin hitz egin zuen bere lanari buruz gehiago jakiteko.

1995ean Errealeko Administrazio kontseiluak sortu berri zuen postua, idazkari tekniko postua eman zion herritarri.

Horrek orain arteko entrenatzaile lanak utzi eta Erreala indartzeko jokalaria bila ibiltzea suposatu zuen. Honetaz gain harrobiko jokalarien jarraipena ere egin behar zuen.

21 urte talde ezberdinak zuzentzen egon ostean, Michelin, Ondarru, Eibar edo Sanse, esate baterako esperientzia eta ezagutza zabala eskaintzen ziola azpimarratzen zen artikuluan.

Baina Etxarrik azaltzen zuenez, bere helburua ez zen lehen mailara iristea. Izan ere, jokalaria gazteekin lan egitea gogoko zuela aitortu zuen orduan. Bere helburua futbol munduan jarraitu, gazteak bilatu eta entrenatzea zela aipatu zuen.

Hala baina entrenatzeaz gain, entrenatzaileen harrobia ere zaintzen zuela aipatzen zuen artikuluan, 18 urte egin zituen ikastaorak ematen eta bere ikasletako bat Juanma Lillo izan zela aipatzen da.

Eta entrenatzaileen munduan denetarik dagoela zioen, "batzuk ez dira inoiz futbolean ibili, beste batzuk jokalaria izanik, entrenatzaile lanetan porrot egin dute".



Zuen oharrak jarri, kexak adierazi edo eskutitzak argitaratzeko: Geltoki kalea, 4 943 366858 txintxarri@txintxarri.info

Ibon Fernandez Iradi Euskal preso politikoa

“Espetxeak gaixotu egiten du”

■ Herriko presoak esklerosi anitza duela jakin du, duela hilabete, Lannemezango kartzelan

16 urte daramatza Lasarte-Oriatik kanpo Ibon Fernandez Iradi herritarrak. Duela hilabete jakin du Lannemezango espetxean esklerosi anitza izeneko gaixotasuna daukala. Behintzat gaixotasunaren diagnostia dauka, 2011ko urtarrilean arazoekin hasi eta urte bete pasa zuen probak egitera eraman zuten arte.

TXINTXARRI

2003tik dago kartzelan Ibon Fernandez, baina badu herriko berri. “Badakit, noski, aldaketa asko eman direla. Orduan ez zen Institutu-Goiegi aldetik Zabaletaraino doan auzorik, ez zegoen udaletxeko eraikin berriarik, trena ere ez zen herri erdiraino iristen, Ostatu eta Txiki tabernak hor ziren... eta Zubietan errauskailuari lekua egiteko txikizoa ere burutu gabe zegoen. Bestalde, badakit, nahiko kultur-dinamika eraginkorra eta indar handikoa dagoela herrian: Sorgin Jaiak, antzerkiaren inguruan herritar asko dabilela...”

Nola bizi dituzue garai berriak? Bistan da oro har aldaketak egon direla, eta aukera berriak ilusioz bizi direla.

Hori bai, aldaketak ez dira espetxeetara iritsi, eta kasu batzuetan egoera okertu egin da. Estatuek ez dute inongo borondatekiko prozesu demokratiko batean murgiltzeko, hau usteltzen utzi eta jendar-teak ilusioa galtzea besterik ez dute nahi. Eta hori lortzeko, presoak erabiltzen gaituzte.

Ba al da prozesu demokratiko bat irekitzeko aukerarik?

Prozesuak aurrera egiteko aukerak badaude, baina Estatuek ez dute prozesu murgiltzeko inolako borondatekiko, arriku bezala ikusten dute.

Beraz, konprometituarazi behar ditugu, eta horretarako gakoak euskal jendartearen aktibazioa da, herri presioa. Argi izan behar dugu eragile internazionalak oso garrantzitsuak diren arren, eta prozesuak aurrera egiteko ezinbesteko laguntza ematen duten arren, inork ez dizkigula kanpotik gure arazoak konponduko.

Konponketa ez zaigu zertuk eroriko, guk geuk, euskal jendarteak heldu behar diogu zenezari adarretatik, gatazka hau hurrengo generazioei ez uzteko.

Nolakoak izan ziren zure bi atxilotetak?

Lehen aldiz, Ahurti ondoan atxilotu ninduten kide batekin, Atturri ondotik doan errepide

txiki batean, aurretik prestatua zuten segada batean. Autoekin aurretik eta atzetik bidea itxi ziguten eta gainera etorri ziren: Hantxe bertan, bortizki, nora gindoaen galdezka hasi zitzaizkigun, bestela Atturriara botako gintuztela esanaz.

Bigarren aldiz, Mont de Marsanen, atxilotu ninduten, beste bi kiderekin, Landetan, autoa garajera sartzen ari nintzela. Lehenengo atxilotetan komisaldegitik ihes egitea lortu nuen eta mendeku bezala nahiko jipoi handia eman ziguten, hantxe bertan, bi kideri: kolpeak jaso genituen gorputz guztian eta bi saihets apurtu zizkidaten.

Deskriba ezazu ihes egitearen poza. Gutxi zarete horrelakorik kontatzen dituzten presoak...

Zer esango dizut... poza handia da, bai, oso handia. Luza-rorako espetxerako bidean izatetik, berriro aske izatera... Ihes egin eta leku ziur batera iristean jan nuen tortilla frantsesa ogitarkeoa munduko eta nire bizitzako goxoen iruditua zitzaidan.

Gerora geratu zaidan sentimendua bestelakoa da, batez ere, espetxean egon beharrean aske egindako denbora hori irabazi nuela, urtebete irabazi nuela.

Kontatuko al diguzu ihesaldia?

Ahurti ondoan atxilotu eta Baionako komisariara eraman

gintuzten. Ziegak, hiru bat metrotara, aerazio zulo estu bat zuen, ez zen erraza pasatzea, baina hainbat aldiz saiatu eta zartakoren bat hartu ondoren, pasillora pasatu nintzen. Kontu handiz, polizia-etxeko eskailera nagusira iritsi nintzen ilunpetan, han polizia bat ikusi eta panel baten atzean gorde behar izan nuen, eskaileretatik jaitsi eta komisariako barruko patioa joan nintzen, beraien autoak aparkatzen dituzten lekura. Kanpoko hesia jarraituz, komisaldegia atzeko atara iritsi, salto egin eta kalera!!!, 2002ko Santo Tomas egunean.

Nik ez nekien, baina manifestazioa zen egun hartan Baionan, eta sirenak entzuten nituen, polizia gora eta behera zebilen kaleetan. Ihes egin eta gutxiira, polizia furgoneta bat sirena piztuta niregana zuzenean zetorrela ikusi nuen, eta nik “akabo! Konturatu dituk! A zer zarta pila jaso behar dudan!” pentsatu nuen, baina furgoneta hori ziztu bizian pasa zen alboetik.

2003tik preso...

Tira, inorentzat ez da goxoa preso egotea, nik neuk aurten beteko ditut 10 urte giltzapean, baina hor ditugu hainbat

lasarteoriatar, Txurdi, Mitxel, Xanti, Ina, Niko, Juankar... zulo zikin hauetan bizitza oso bat. 25 urte edo gehiagoz eduki dituzte gatibu, azken urteak Parot doktrina aplikatuta. Pentsa dezagun gutariko bakoi-tzak, zer den 25 urte edo gehiago espetxean eta herririk urrun egotea... Txapela kentzen dut beraien eta euren familien aurrean.

30 urteko kartzela zigorra jaso duzu frantziar epaitegietan...

Argi nuen ihes egitea ez zidatela barkatuko eta zigor gogorra jarriko zidatela. Horrez gain, 2001ean tiroketa bat izan genuen jendameekin, jendar-me bat zauritua ateraz zen, eta horregatik ere zigortu ninduten. Bestalde, bigarren atxilotketarengatik izan nuen azken epaiketa bitxia izan zen, fiskalak 20 urte eskatu eta epaileak 30 urteko zigorra ezarri zidan.

Eta, bai, 30 urteko zigorra handia da hemengo epaiketetan, baina bi kideri, Txistor Aranbururi eta Jakes Esnali, bizi arteko zigorra ezarri zieten. Txistor nirekin dago, hemen, Lannemezangoan.

Zer moduz osasun arazoak? Egin dizkizute mediku frogak?

Duela gutxi jaso dut frogak mediku

berrien emaitza, eta, ezin esan ona denik, esklerosi anitza daukat. Bestalde, 2012ko urrian kortikoide-tratamendu baten ondorioz, infekzio orokorra izan nuen... Tira hor nabil nire minekin egoerari buelta eman nahian. Hemen-dik aurrera, maite dudan pertsona batek esandakoa egin beharko dut, esklerosia betirako nirekin biziko denez, bere laguna egin, nirekin askotan haserretu ez dadin.

2011ko urtarrilean hasi ziren nire osasun arazoak. Espetxean gastroenteritis bat zabaldu zen, denek pasa eta sendatzen ziren, ni izan ezik. Gaitzak gorputz erdia harrapatu eta bi astez gurgil-aulki batean egon behar izan nuen, zer zen jakin gabe. Ez ninduten ospitalera frogatu medikuak egitea eraman nahi. Azkenean salaketa jarri eta irabazi ondoren, ospitalera ateratzea lortu genuen, gaixotasuna hasi eta kasik urte betera. Bizkarrezurreko muinean sei lesio nituela esan zidaten orduan, zer gaitz zen zehaztu gabe.

Eskubide urraketarik ba al da espetxeetan?

Espetxea bera urraketa handi bat dela esan genezake. Espetxeak batez ere pobre eta baztertuentzat eginak daude (eta disidentzia politikorentzat). Aberats gutxi ikusiko duzu hemen, lapur handienek ez dute hemen bukatzen.

Bestalde, arazo psikologiko eta psikiatrikoak dituzten presoek kopurua izugarria da, psikiatrikotan artatu beharrean espetxetara ekartzen dituzte, merkeagoa baita tratamendu egokia ematea baino.

Kartzelako tailerretan baldintza penagarrietan egiten dute lan, soldata miserableekin eta eskubiderik gabe. Enpresak, presoak duten behar egoeraz baliatzen dira, eta gainera enpresa eta espetxeek esklabo lan hau, bergizarteratze politika eta presoekiko laguntza bezala janzten dute... eta horrela eskubide urraketen zerrendarekin segituz gero, ez gence elkarriketa bukatuko.

Pertsona ez dago lau pareta artean egoteko egina, osasuntsu sartutako asko hemen gaitzotzen dira. Espetxeak gaixotu egiten du. Dituen helburuak kontutan izanda espetxea porrot handi bat dela esan daiteke, espetxeak egun ez du inor bergizarteratzen.

Penagarriena da ez dutela hau aldatzeko asmorik, espetxea negozio handi bat da eta.



Elkarrizketa oso osorik txintxarri.info webgunean



Bilduren omenaldia Balerdi sendiari.- Lasarte-Oriako Bilduk Askatasunaren plazan omenaldia egin zien 2003ko otsailaren 28an istripuz hil ziren Argi Iturralde eta Iñaki Balerdi, Juankar Balerdi euskal preso politikoko ama eta anaia. Pablo Barrio alkateak hartu zuen hitza eta Nerea Sanchez eta Taxio Arrizabalaga Bilduko zinegotziek egin zuten lore eskaintza. Bilduko zinegotziak eta hainbat herritar izan ziren omenaldian hauen sendeekin batera. Alkateak euskal presoaren aurkako dispersio politikarekin amaitzeko eskatu zien estatu espainiar eta frantsesari.